Zurriolako Ataria

246. alea 2024-04-12

Eskatu Tantak Ikastolen alde!!

Elkartasunetik sortu ziren Ikastolak, eta **Ikastolen proiektuak elkartasunaren beharra du oraindik ere**!! Babestu dezagun partaide guztiok Euskal Herriko ikastolen proiektua, TANTA txartelen bidez. 5€-ko txartel hauen truke 60.000€-ko zozketa batean parte hartuko duzue. Egin eskaera galdetegi honetan! Zirkularra.

Ategorrietan arropa berreskuratu

Ategorrietako atarian ikasturtean zehar ikasleek utzitako aterki, jertse eta antzekoak pilatzen joan zaizkigu. Berriro ere deia egiten dizuegu hurrengo ostegunean, ekainaren 7an, arratsaldeko 16:30ean Ategorrietako atarian erakusgai jarriko ditugun arropa eta aterkiak begiratzera, eta, zuen seme-alabenak badira, hauek jasotzera. Jasotzen ez direnak gobernuz kanpoko erakunde batera bideratuko dira behar duten haurrek erabil ditzaten.

Heziketa Fisikoa hondartzan

LH5ekook zirkuko emanaldia prestatu behar dugu Gorputz Hezkuntzako saiorako, eta hori aprobetxatuz, akrosporteko saioa hondartzan gauzatu dugu. Gustura aritu gara akrobaziak entsaiatzen!

Gerta Dakizuke, trafiko-istripuen arriskuari buruzko saioa

Bide-hezkuntzaren gaia jorratze aldera eta bereziki, errepidean gaudenean segurtasun neurriak errespetatzeak duen garrantzia barneratzeko, DBH4ko ikasleok Gerta Dakizuke izeneko tailerrean parte hartu berri dugu. Errepidearen arriskuez, trafiko-istripuen ondorioez eta sor daitezkeen lesioek eguneroko bizimoduan dituzten ondorioez hitz egin dugu.

Plaza Dantzen ikastaroa

Zurriola Musika eta Dantza Eskolak plaza dantzen ikastaroa antolatu du apirila eta maiatzerako. Astearkienetan izango da, Ategorrietako musika gelan, 17:30etik 18:30era. 5 saio izango dira (apirilak 24 eta maiatzak 8, 15, 22, 29), eta 25€-ko kostua izango du. Zortzi kideko taldea behar dugu ikastaroa osatu ahal izateko, beraz, animatu eta eman izena apirilaren 19a baino lehen!

OHARRAK / AGENDA:

- **HH3:** Egun-pasa Gladys Eneara. Apirilak 17. Zirkularra.
- **HH4:** Gurasoa-bilera orokorra. Apirilak 17. Zirkularra.
- **HH5:** Arritxulora irteera. Zirkularra.
- **DBH1:** Baionako elkartrukearen balorazio-galdetegia (euskaraz/gaztelaniaz).
- **DBH3:** Giza Eskubideen Zinemaldia. Apirilak 18.
- **Eskola Kirola:** 17. jardunaldia. A eta B.
- **Zurrimendi:** Apirileko irteera. Apirilak 21. Zerain-Aizpeako meategiak.
- **Haurtxokoa & Gaztelekua:** Apirileko programazioa.
- **Donostiako Haur Liburutegi Nagusia:** Kontu kontari.
- **Familiarekin jolasean:** Apirila-ekaina egitaraua.



itzuli

ZURRIOLA IKASTOLA IKE
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587